

## Zorionak gay eta lesbianeiei

Minbiziaren kontrako eguna, emakume langilearen eguna, beste hainbat gauzaren eguna.... Giza eskubideak eta eskubide sozialak betetzearen aldetik, normalizazioa lortzeko konpromisoa behar duen guztiak du bere eguna. Eta egun horietako bakoitzaren atzean, beti egoten da arazo oso larriren bat.

Gaur gay harrotasunaren eguna ospatzen dugu. Ospatu beharreko zerbait al da? Zoriondu egin behar al zaituztet? Nire ustean, lehen gerturatze teoriko bat eginik, harrotasun heterosexualaren eguna ospatzen ez bada, gay harrotasunaren eguna ere ez litzateke ospatu behar. Baina errealitateak bestelako kontuak erakusten dizkigu: oraindik ere nazioarteko egun hau ospatzea beharrezkoa da, gay, lesbiana eta transexualen eskubideak aldarrikatzeko. Eta, era berean, jakin badakit azken urteetan lortutako guztiagatik ere – ospatzen dudan horregatik guztiagatik–, bide luzea dagoela egiteko.

Harrigarria bada ere, munduko berrogei herrialdetan oraindik ere legez kanpokoak dira homosexualitatea, bisexualitatea eta transexualitatea. Saudi Arabian eta Iranen, esate baterako, homosexualak akabatu egiten dituzte. Indian, gizonezko homosexualak betiko kartzela zigorra izan dezakete. Mauritanian eta Sudanen heriotza zigorra ere ezar dezakete homosexualizateagatik. Nepalen, berriz, poliziak atxilotu eta egurtu egiten ditu transexualak eta beren aktibistak. Hondurasen eta Kolonbian torturatu eta erail egiten dituzte. Europar Batasunean bertan,

Polonian kasu, homofobiak sekulako gatazkak sortzen ditu. Eta gogoan izan behar dugu Osasunaren Munduko Erakundeak 1990 inguruan atera zuela homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik.

Hori guztia dela eta, zoriontzeaz gain, animatu ere egin nahi zaituztet borrokan jarraitzeko. Izan ere, guztion artean lortu behar baitugu erabateko normalizazioa. Eta guztion artean esaten dudanean, ni ere hortxe sartzen naiz. Zuen helburuekin bat nator, eta nire babesa ez ezik, Eusko Alderdi Jeltzale osoarena ere jasoko duzue.

Legez, inolako zalantzarik gabe, ezkontzeko modua duzue; ondobidean, haurrak adoptatzeko aukera ere baduzue. Zuekiko ikuspegi soziala nabarmen hobetu da. Baina izan gaitezen zintzoak: aurrerapen handiak izan diren arren, guztion artean lortu behar dugu normalizazioa erabatekoa izatea.

Normalizazioak esan nahi du inor ez kartzelatzea edota hiltzea, inon ere ez, bere orientazio sexuala dela eta. Normalizazioak esan nahi du, era berean, gure seme-alaben ikastetxeetan inork diskriminazio fisikorik edota psikikorik jasan behar ez izatea. Normalizazioak esan nahi du familiek lotsarik gabe bizi izatea beren seme-alaben orientazio sexuala, kolean eraso gehiago ez izatea...

Hainbat manifestutan baieztatzen den moduan, gizon-emakumeen sexualitatea eta afektibotasuna bizitzeko moduekiko gizarte integratzaileagoa, berdinaagoa eta solidarioagoa lortzeko lan handia dago egin beharra. Sentsibilizazio lan handia, baita hezkuntzaren

alorreko lana ere. Hainbat sektoretan (adinekoak, ezgaitasunak dituztenak, etorkinak) ahalegin berezia egin behar da, sexu eskubideak kontuan hartzen ez dituztenetan, bereziki.

Azken batean, guztion artean ahalegin handia egin behar dugu modu positiboan aurrera egiteko, eta orientazio sexuala erabateko naturaltasunez eta normaltasunez bizi izateko. Hori ere, azken buruan, aniztasuna errespetatzeko eta erabakitzeko eskubidea defendatzeko beste modu bat da, alorrik pertsonalenean eta indibidualenean. Gure orientazio sexuala erabateko askatasunez erabakitzeko eskubidea.

Sekula ez dut ulertu «desberdin» ikusten eta diskriminatu egiten zaituzten jendea. Aurkitzen ditudan azalpen bakarrak ezjakintasuna eta presio soziala dira. Gainera, guztiok dugu inguruan gay, lesbiana edota transexual bat –jakin edo ez, onartu edo ez–. Maite dugun pertsona bat, eta, nahi gabe bada ere, min egiten diogun pertsona bat. Eta, nahiz eta legeak aldatu egiten diren eta aurrera egiten duten, gizarteak ere bide berari jarraitu behar dio. Eusko Alderdi Jeltzalea ezinbesteko lanabesa gara eraldaketa lan horretan, eta hala izaten jarraitu behar dugu.

Ekainaren 14an, EAJk Think Gaur Euskadi 2020 aurkeztu zuen. Parte hartzeko proiektu bat, etorkizuneko gakoak definitzeko eta Euskadik 2020. urtean zer tokitan egon behar duen definitzeko proiektua. Inolako zalantzarik gabe, hausnarketa prozesu horretan orientazio sexualaren eta genero nortasunaren normalizazioa ezinbestekoa izango dira; izan ere, ez baitugu ulertzen guztiok berdinak ez garen mundu bat. Hori lortzeko, behar zaituztegu. Zuen

ekarpenak eta ezinegonak zein diren jakin behar dugu, baita zuen hausnarketak eta beharrizanak ere. Egiteko daukagun bidea guztion artean egin ahal izango dugu. Eta ez naiz «onartzeaz» edota «tolerantziatz» ari. Inork ez zaituzte «onartu edota toleratu» behar. Erabateko berdintasunaz eta normalizazioaz ari naiz hizketan.

Gaur, hemen, Eusko Alderdi Jeltzaleak pertsona guztien eskubideak defendatzeko konpromisoa berresten du.

*In&Out* filmean, institutu bateko ikasle guztiek homosexual zirela esan zuten, bere orientazio sexuala zein zen jakinarazi ostean kaleratu egin zuten irakasle bat defendatzeko. Nazioarteko egun hau ospatzeko, zuekin guztiokin dago Eusko Alderdi Jeltzalea, gertutasuna eta konpromisoa oinarri hartuta.

Iñigo Urkullu Renteria

EAJren EBBko presidentea